

Haurren hiria, sorleku ala gotorleku?

Jolaslekurik gabeko hirian ezin haurrik hezi

Laburpena: Umeek kalean aske eta bakarrik ibiltzea beharrezkoa dute euren garapenerako, baina gaur egungo hirien egituraketak garapen hori oztopatzen du.

Abstract: The children need being free and alone at the streets of their cities to develop their selves, but today's cities structure hinders this development.



Ianire de Andres Olabarria

Arkitekturan lizentziatua eta Hiri-politikak, Hiritartasuna eta Haurren Parte-hartzean aditua.

Gako-hitzak: Haurren hiria, Jolaslekuak, Eskola Bidea, Espazio publikoa.

Keywords: City of children, Playgrounds, School pathway, Public space.

Bidaltze data: 2016/05/01

Onartze data: 2016/05/04

Jakina denez, industrializazioaren legeetan oinarrituta sortu eta garatu ziren hiriek ekoizle ziren kolektiboak hartu zituzten bakarrik aintzat, beste hainbat bizilagun eta kolektibo hiriaren plangintzaren oinarritik kanpo utziz, eta horien artean, alboratutako kolektibo bat haur eta gazteena da. Jendarte neoliberal honek, umeak, etorkizuneko heldutzat hartzen ditu, ume diren bitartean oraindik pertsona oso ez balira bezala (18 urte bete arte adibidez, ez dago demokrazian parte hartzeko eskubiderik). Sistema politikoak ez ditu haurrak eta gazteak hiritartzat hartzen, eta, beraz, bizilagun bezala dagozkien eskubide eta esparruak ukatzen zaizkie.

Lehenengo pausoa beraz, haur eta gazteak herritar osoak direla aldarrikatzea da, hiriaren plangintzan beraien beharrian eta eskaerak jasotzeko. Hiriak eta herriak badira jendarteak garatzeko eta eraldatzeko beharrezkoak diren pertsonen arteko harremanen sorleku eta eremu, txikien harremanak eta topaketak jasotzeko gai ere izan beharko dute. Haurrek, pertsona bezala garatzeko, beharrezkoa dute euren bizigunean aske eta bakarrik mugitu eta esperimintatzea. Umeei arrotzak eta deserosoak egiten zaizkien hiriguneak diseinatuz, haien hirirako eskubidea ukatzen ari gara, haien garapenerako eskubidea urratuz. Guztion neurrira moldatuko den hiri-eredua behar dugu, gure haur eta gazteak haziko diren hiri hezitzaileak lortzeko.

Haurren hirirako eskubidea

Nagusiak beharrean ziren bitartean atarian olatzen zuten umeen irudia gero eta lausoagoa da gure irudimenean. Garai batean gure auzoek hain era naturalean betetzen zuten funtzio soziala desagertuz joan da azken hamarkadetan. Izan

ere, Hillman, Adams eta Whitelegg-ek egindako ikerketek aditzera eman zutenenez, 70 eta 90eko hamarkadan artean kalean bakarrik ibiltzen ziren haurren kopurua nabarmen jaitsi zen (Hillman, Adams eta Whitelegg, 1990). Kaleek umeak galdu zituzten, eta umeek kaleak. Joera horren arrazoia, hamarkada horietan ibilgailu pribatuek hirien funtzionamenduan hartu zuten protagonismo bortitzean bilatu ohi da. Baina autoek umeak kaleetatik botatzea hain erraz lortu izanak ordurako jendarteak umeen inguruan zuten ikuspegian du jatorria.

Irudimen kolektiboan, ume eta gazteak, etorkizuneko belaunaldia dira, momentuko jendarteak hobetu eta mundu perfektua eratuko duten etorkizuneko emakume eta gizonak. Haurrak dira gizatasunaren balio handien jasotzaile, hiritar perfektuak alegia, eta hiritartasun hori bermatzeko XX. mende hasieran umeek kaleetan zuten presentzia kontrolatzen hasi ziren. Helduon askatasunak lekuri ez duen jendartean, haurren askatasunak ere murrizten hasiko dira, kalean aske dabilzan umeak desordena, segurtasun falta eta gatazkaren irudi direla argudiatuz. Madrilgo orduko alkateak 1924an eman zuen bandoak argi erakusten du umeak «euren lekuan» mantendu eta «etxekotzeko» joera berria: «Gurasoek, euren erantzukizunik estuenaekin zainduko dituzte euren seme-alabak, hauek bakarrik parke eta lorategietan jolas dezaten, hauek baitira haurren jolaserako leku egokiak (...)» (Román eta Salís, 2010: 26).

Haurrak hiritartzeko asmo kolektiboari kapitalismoaren interes gordinak batu zitzaizkion urte haietan. Ibilgailu pribatuak eta etengabe produzitzeko gogoak bizi-erritmo berria ekarri zuten hirira, eta hirigune frenetiko hartatik umeak babestu beharra zegoela sinetsi zuten helduek. Etxetik atera eta kanpoan dagoen mundua arriskutsua dela sinetsi dugu, txikiak kalte guztietatik babesteko «haien



Irudia ~ 8 urteko haur batek egindako bere herriko (Markina-Xemein) espazio publiko baten (Zelaia) marrazkia.
Egilea ~ Irene.
Iturria ~ lanire de Andres Olabarria.

neurrira» egindako mundu bat sortuz hiriaren baitan. Asmatutako haurren unibertsoa espazio kolektibotik at geratu da, hiriaren funtzio nagusiak umeen beharrezanetatik aldenduz eta umeei euren hiriguneetan aske mugitzeko eskubidea ukatuz.

Autonomian hasi eta hezi

1989an Nazio Batuek Nazioarteko Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena sinatu zuten New Yorken, eta bertan jasotzen diren 15. eta 31. artikuluek zera diote, neska-mutil guztiek elkartzeko eskubidea dutela, eta neska-mutil guztiek jolas egiteko, atsedena hartzeko, ondo pasatzeko eta euren gehien gustatzen zaiena egiteko eskubidea dutela (Tonucci, 2013: 194,196). Izan ere, umeei euren inguru fisiko eta sozialarekin erlazionatzeko duten baliabide intuitiboak jolas librea da. Jolas librearen bitartez, fisikoki eta emozionalki pertsona autonomoak izaten ikasteko tresna eta baliabideak garatzen dituzte.

Helduon beldurrak eta haurren gaitasunenganako konfiantza ezak haien beharrezan errealean galtzea ekarri du. Umeak hainbeste babestu nahian, lagundu ordez, haien garapena oztokatzen ari gara. «Izatetik» baino «ez izatetik» gehiago dutela uste dugunez, heldu izateko «behar dutenari» begira gaude ume izateko behar dutenari baino gehiago, eta guztiontzat aproposak diren espazio publikoak diseinatu beharrean, estetika eta konnotazio oso markatuak dituzten gune isolatu eta mugatuak txertatzen ditugu haienztat gure plazetan (umeentzako parkeak eta gazteentzako lokalak adibidez).

Gurasoek hiriko azpiegituren gabeziatan arrazoitzen dituzte euren kezka eta beldurrak. Teknikarion lana da umeen joan-etorriak babestuko dituen eta, ondorioz, askatasunean mugitzeko aukera emango dien hiri-eredua jorratzea. Beharrezkoak diren zerbitzuen arteko distantziak murriztea, motordun ibilgailuen erabilera mugatzea, oinezkoen beharrezanetara lehentasuna ematea (oinezkoen

kotara altxatutako zebraideekin espaloiei jarraitasuna emanez) eta bizikletaz edo patinez mugitzeko bide gorriak bereiztea, adibidez, azpiegitura aldetik egin daitezkeen aldaketa txikiak dira.

Izan ere, umeei kaleetatik ateratzeko «hezkuntzaren pribatizazioa» ekarri du. Umeak etxean eta eskoletan «gordeta» ditugu, eta, beraz, haurren sozializazioa eta hezkuntza komunitatearen arduretatik kanpo geratu da, hirigintzaren arduretatik kanpo alegia.

Eskola Bidea: haurrek kaleak berreskuratzeko pausoak

Eskola Bidea egitasmoa abiapuntu eta tresna interesgarria da fenomeno honi aurre egiten hasteko. Ezagutzen dugun lehen esperientzia 70eko hamarkadan izan bazen ere (Odensen, Danimarka), azken hamarkada hau arte ez da Euskal Herrian horrelako proiekturik gauzatu. Hasierako praktika haiek bide-segurtasuna lantzea eta osasun-arazoak ekiditea zuten helburutzat, baina gurean gaur egun martxan jartzen diren Eskola Bide gehienak Tonucciren proposamenetik datoz, eta askoz eraldaketa sakonagoa eta sozialagoa bilatzen dute. Etxea eta eskola direnez gaur egungo haur eta gazteen gotorlekuak, proiektuaren helburu nagusia bi espazio horietaz baliatuz, tarteko ibilbidea (etxetik eskolara eta handik bueltan etxera) haiek bakarrik egitea lortzea da, helduen laguntasunik gabe alegia. Adin desberdinetako ikasleak elkartu eta joan-etorriak euren kabuz gauzatea.

Erraza dirudien ekintza bada ere, hasieratik erresistentziak jasaten dituen prozesua da; izan ere, horretarako behar-beharrezkoa da gurasoek haurren eskua askatu eta euren mugimenduen jabe izaten uztea. Gaztetxoek % 69k bakarrik doazenean segurtasuna sentitzen badu ere (% 13 soilik sentitzen da arriskuan), Espainiako Estatuaren datuen arabera, 8 eta 12 urte bitarteko ikasleek % 30 bakarrik joaten da bere kabuz eskolara, % 70 gurasoek eramanen dituzte (Rimán eta Salís 2010: 35,46). Herrietan kopurua handitzen



Irudia ~ Umerik gabeko kaleak, etorkizunik gabeko hiriak.
Egilea ~ Ianire de Olabarria.

bada ere, datuek agerian uzten dute gurasoek ez dutela euren umeen joan-etorrietan segurtasuna bermatzeko prest ikusten; hiria eta bertako biztanleak arrisksuegitzat dituzte.

Egoera hori izanda, proiektuak auzokoek euren inguruarekiko galdu duten konfiantza berreskuratzeko lanketa ere ahalbidetzen du, jarrera-aldaketa kolektiboa behar baita esperientzia arrakastatsua izateko. Eta Eskola Bideak biztanle guztien parte-hartzea lortu behar du haur eta gazteen jabekuntzan pauso irmoak emateko. Hasieratik aldaketa bortitzari ekin beharrean, neurrirra datozen aldaketa txikiak eta probak eginez sortu eta une oro birmolda daitekeen egitasmo kolektiboa izan behar du, probak eginez eta esperimendatuz, modu, egitura eta azpiegitura baliagarriak finkatzen joateko. Adibidez, herritar guztiak badakite eguneko une jakin batzuetan haur eta gazteak joan-etorrian ibiliko direla, dendariak, erretiratuek... guztiak har dezakete parte herritar txikiaren zaintzan. Jane Jacobs-en hitzetan «(...) kalera begiratzen duten begiak egon behar dira beti, kalearen jabe naturaltzat jo ditzakegun pertsonen begiak (...) ezezagunei azterketa egingo dietenak eta era berean auzotar zein ezezagunei segurtasuna eskainiko dietenak» (Jacobs, 2012: 61).

Gehiegi diseinatutako hirian sormenerako lekurik ez

Gure hiriguneek eta, ondorioz, gure haur eta gazteek pairatzen duten beste kontraesan bat gaur egungo hirigintzan nabarmenak diren zonifikazioa eta espezializazioa dira. Gero eta pluralagoa ikusten dugun jendarte honetan, gure hiriek gero eta segregazio-plan gehiago jasaten dute, jendartearen ekintzak eta jarrerak kontrolpean izateko tresna bailiran. Espazio publikoan xehetasunik txikiena ere funtzio jakin batekin diseinatzen da, gune bakoitzaren izaera eta itxura guztiz finkatuz, eta, beraz, baita erabilerara ere. Haurren irudimenean edozein leku da jolaserako aproposa, baina estimuluz jositako txoko batek ez du sormenerako,

bat-batekotasunerako eta esperimendatuzko aukerarik ematen.

Márius Navazok hiriek pairatzen duten gehiegizko zehaztasun eta kontrol hori adibide honekin azaltzen du: «Ibilgailuen zirkulazioa, segurtasunaren aldeko aurreikuspenen aginduz eta seinale bidez araututa dago. Oinezkoen erabilerak, berriz, ezezaguna eta legerik gabekoa izan behar du. Ziurgabetasun hori, bat-batekotasun hori babestu beharra dago. Parkean gertatzen dena, geure atarira ekarri behar dugu». Egunerokotasunaren baitan sor daitezkeen bat-bateko bizipenak (ume zein helduenak) sostengatzeko, alde batetik bestera zeharkatzeko diseinatu ditugun kaleak herritarrentzako egongela bilakatu behar ditugu. Egonean egotera gonbidatzen gaituzten espazio publikoak sortu.

Espazio publikoaren diseinu zorrotz eta banatzailearen adibide garbia dira haurrentzako parkeak. Esan bezala, gehienetan hesiz inguratzen diren gotorleku isolatuak izateaz gain, erabiltzen diren forma eta kolore primarioek haurren mundua zein sinpletzat dugun adierazten dute. Horrez gain, oso esanguratsua den kontraesana ezkutitzen dute. Espresuki txikieneztat eraikitzen ditugun jolas-egitura horietan ezin dira bakarrik ibili, helduen laguntza behar izaten dute leku batetik bestera igo, jaitsi edota pasatzeko, eta kautxuzko lurra jarri arren, egitura horien altuera eta material zurrinak direla-eta, min egiteko arriskua altua da. Haurrek eta gazteek, berriz, nahiago dituzte elementu naturalak biltzen dituzten guneak. Zuhaiak, hondarrez eta belarrez eratutako espazioetan adibidez, euren jolaserako ezkutalekuak aurki ditzakete. Naturan, euren irudimenean kabitzen den edozer izango diren erabilerara zehatzik gabeko elementuekin jolas dezakete, euren sormenari eta, ondorioz, garapen pertsonalari mugarik jarri gabe.

1 NAVAZO, M. (2014-06-26): Espacio Público: políticas urbanas y ciudadanía (UOC; UAB; IGOP) graduondokoan emandako «De ciudad-tránsito a ciudad-hogar» hitzalditik ateratako hitzak.

Aniztasunean pentsatutako hiria, hiri hezitzailea izango da

Haurtzaroaren kulturak haurren berezko gaitasunak aldarrikatzen ditu. Umea, berezkoa duen bizi-senari jarraituta, gai da bere egunerokotasunean suertatzen zaizkion arrisku eta erronka txikiei aurre egin eta ikasten joateko, baina horretarako eskainiko dizkion bizigune bat behar du, bera kontrolatzeko gai den esperientzia desberdinak bizi ahal izateko kale, plaza eta auzoak. «Hiriak eta jendarteak bere osotasunean, haurrek atea zabaldu, etxetik irten eta oinez lagunen bila joatea bezalako esperientzia natural bat bizitzeko baldintza egokiak sortu behar dituzte» (ROMÁN eta SALÍS, 2010: 13). Hiriaren diseinuan parte hartzen dugun guztion eta zehazki teknikarion betebeharra da, beraz, ume eta gazteek dituzten gaitasunak aitortzea, eta ditugun baliabide eta azpiegitura guztiak haien mesederako antolatzea, garapen horrek bere espazioa izan dezan.

«Haurren Hiria» egitasmoak adibidez, erronka honen oinarrian haurra parametrotzat hartzea proposatzen du, haurra hiriaren plangintzaren nukleoa izatea. Francesco Tonuccik honela arrazoitzen du: «Haurren beharrez eta nahiez konturatzen denak, berriz, ez du inongo arazorik izango zahar, elbarritu edo etorkinen beharrak kontuan hartzeko. Funtsezko afera aniztasuna onartzen ikastean datzalako eta haurra izate askotarikoa da; (...) Ustea da hiria haurrentzat egokiagoa bilakatzen denean, guztiontzat egokiagoa bilakatuko dela» (Tonucci, 2013: 42). Haurren hiria, beraz, ez da izango haien neurrira sortutako miniaturazko hiria, edozein adinetan jokorako gogoia pizten duen bizitokia baizik.

Hirigintzan dihardugunon erantzukizuna da hiriguneez duten funtzio hezitzailea berreskuratzea. Diseinua hobetuz eta umeak hiri-funtzionamenduan trebatuz, kaleetan segurtasunarekin eta autonomoki mugitzeko aukera izango dute, euren auzoetako espazio publikoaren erabilera berreskuratuz eta gozatuz. Kolektibo desberdinentzako askotariko aukerak eskaintzen dituzten espazio malguak eta une oro esperientzia berriak jasotzeko gai diren txokoak dituen egongela-hirian, haur eta gazteek euren biziguneetan aske jolasteko aukera izango dute. Eta orduan izango ditugu herritarron garapenerako hiriak, kaleak berriro haurrenak direnean, eta haurrak hiriarenak.

////

Bibliografia

Hillman, M.; Adams, J. eta Whitelegg, J. (1990): *One false Move... A study of children's independent mobility*, PSI Publications, Londres.

Román Rivas, M. eta SALÍS CANOSA, I. (2010): *Camino escolar*, Ministerio de Fomento, Madril.

Tonucci, F. (2013): *Haurren Hiria*, Txatxilipurdi Elkarteak [ISBN 978-84-616-3766-9].

Freire, H. (2015): *Berdean bezi*, Txatxilipurdi Elkarteak [ISBN 978-84-608-2640-8].

Jacobs, J. (2012): *Muerte y vida de las grandes ciudades*, Capitan Swing, Bartzelona.